

# Ihesi

Testua eta argazkiak:

ÁLVARO HILARIO  
PÉREZ DE SAN ROMÁN

Bizkaiko mendebaldean, Kantabriarekin mugan, Barbadun ibaiaren haranean, Trianoko mendiek eta Bizkaiko Golkoak gordeta, Muskiz herria dugu. Itsasoak, burdinak eta mugak zizelkatu dituzte herriaren historia eta oraina.



Euskal Herria ezagutzuz:  
**Muskiz (Bizkaia)**



## Salazartarren erresuma

BEHIN Somorrostroko Haraneko zatia izan zen kontzeju zahar hau hamar auzunek osatuta dago. Mendeetan zehar Muskiz izan zen bertako hiriburua, eta izen hori du udalak gaur. Kokapen estrategikoa eta burdinari lotutako jarduerak funtsezkoak dira Muskiz ulertzeko. Bataz zein besteaz arduratuko zen Salazar fami-

lia, XIII. mendean eraikitako Muñatoizko gaztelutik. Bera da Bizkaiko gaztelu bakarra. Bilbora doan errepidean, findegi ondoan dago barruti biko eta dorre bateko eraikina. Gazteluak, alboko baselizak eta jauregiak osatzen duten multzoa 1944an izendatu zuten monumentu historiko-artistikoa. Egun, jauregiak Petro-

norreko bulegoak gordetzen ditu eta komenigarria da, hara hurbildu aurretik, gaztelua ikusterik badagoen ziurtatzea. Ez da Muñatoizkoa, baina, salazartarren gotorleku bakarra: Sopuertarako bidean Santelicesko dorretxea dugu izen bereko auzoan. Handik gertu, Memereakoa, eta urrunago, Pobalekoa.

mendean Simon de La Cuadrak eginiko lanek eman zioten. Burdinola ez ezik, errota, jauregi-dorretxea —egun erakusketa etxea—, tailerra, labe bi, ukuiluak, presa eta zubia ere ikusgai daude.

Larunbata da Pobal bisitatzeko egun aproposena, eguerdiko hamabietan hoge minutuko iraupena duen erakustaldia hasten baita; Burdinolako tresneria osoa (labea, txinboak, gurpil hidraulikoak) abian ikusteko aukera izango dugu. Irin-errota, berriz, egunero jartzen dute martxan. Pobalen ikasleentzako jardura osagarriak ere eskura daude: Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko gida didaktikoak, jolasak eta bisitaldi gidatuak, hala nola ogia egiten ikasteko tailerak dira aipatzekoak.

Burdinolatik 150 metrora, iparralderantz, harrizko zubia topatuko dugu. Behin zubia zeharkatuta, haritzen, akazien, sahasen eta gaztainondoan ondotik, ibaiari segituz, Valdibianeraino doan bidezidorretik joango gara. Bidean XVIII. mendeko Ollako burdinolaren eta errotaren aurrietara iritsiko gara; Sopuerta eta Somorrostro elkartzan zituen errepidetik hurbil dago. Han, ibaitik gertu, Valdibianera eramango gaituen bidea dago: haltzak, lizardiak eta akaziak, Enkarterrietako industria elikatzen duten eukaliptoekin lurra konpartitzen. Bidearen amaieran Barbadun ibaiak bustitako errota bakarra dago, Valdibiangoa. ■



Ezkerreko argazkian, Pobaleko burdinola, eta eskumakoan, San Joan Bataiatzailea eliza. Aurreko orrialdean ageri dena Salazar leinuaren jauregia da.

XVIII. mendean izango zuen Muskizek bere urrezko aroa. Borboien eskutik aberastu zen klase burokratiko berria izan zen garai haietako protagonista. Herrian zehar sakabanatuta dauden jauregiak ditugu ongizate haren isla. Aipatzekoak dira, besteak beste, Enterrado, Treto, Alvarado, Villar, Lavalle eta Llarena jauregiak. Familia berberak eraiki zituzten, urte haietan, San Joan Bataiatzaile eta Bariko San Nikolas parrokiak. Herriko eliza zaharrena, ordea, San Julian, Erdi Aroan altxatu zuten, eta XVI. mendean berreraiki. Nabarmenezkoak dira aipatutako eraikinetan ikusgai dauden armariak.

### Pobaleko burdinola

Ugari dira ere mendeetan zehar burdingintzak utzitako aztarnak. Kostaldekoak ezagunak ditugunez (ARGIA, 2.169. zbkia.), barrurantz abiatuko gara, Pobaleko burdinola ezagutzera. Txangoaren zati honek historia eta natura uztartzeko aukera emango digu. Sopuertarako errepedearek eutsiz, hirigunetik kilometro bat eta erdira, 2004an berreraikitako Pobaleko burdinola aurkituko dugu. Bizkaiko zainduena da, eta Eusko Jaurlaritzak multzo monumental izendatua du. Eraikina XVI. mendearen amaieran salazartarrek eraiki bazuten ere, gaur egungo itxura XVII.

## EUSKARAREN ASTEA 2009

**Azaroak 2** **ESKOLEN ARTEKO TOPAKETAK**  
**KARAOKEA (Lehiaketa) (MOZORROTUTA)**  
19:00-20:30

**Azaroak 3** Filma: **SUKALDE KONTUAK**. 10:30  
Filma: **SUKALDE KONTUAK**. 15:30 / 19:00

**Azaroak 4** **DIAPOR: BIDAIAK** "Ipar gazi-Hego geza". 10:30  
**DIAPOR: BIDAIAK** "Ipar gazi-Hego geza". 17:30

**Azaroak 5** FILMA **"BETIZU IZAR ARTEAN"**. 10:00  
FILMA: **"BALOIA"**. 15:30

**Azaroak 6** Antzerkia: **"KIKI SUPER SORGINA"**. 10:00 / 11:30  
Pailazoak: **"PIRRITX ETA PORROTX"**. 17:30 / 19:30  
**KONTZERTUA: "Esne Beltza"** (Meatzari Plazan)  
22:30

**Azaroak 7** **EUSKARA ZETAMOL (Meatzari Aretoa)**. 19:00

**Azaroak 8** **MENDI MARTXA**. 10:00  
**BERTSO BAZKARIA**. 14:30

**EUSKAL FILMA**



San Juan, 2 • 48550 Muskiz (Bizkaia) • Tel.: 946 706 000 • Faxe: 946 706 363

Muskizko Udala